

«Irtenaraztea heldu da»

Onddo Gazte  
Asanbladakoek  
irtenbide falta  
salatu dute ▶ 5



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Igandea ▶ 2006-10-08 ▶ IV. urtea ▶ 982. zenbakia ▶ [www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

## Elikagaien Azoka Berezi koloretsua Villabonako Txerminen

**SARIAK** ▶ Amasako Uxo-Toki elkarteak eraman zuen isats gisatuarena; postu onena, Zabalegi baserriari ▶ 4



Postu onenari saria irabazi zuen Martuteneko Zabalegi baserriak, postu honi esker. N. URBIZU



N. URBIZU

## Txirrindulari gazte ugari pedalaren festa handian

**TOLOSA** ▶ VIII. Garagardo Azokaren baitan, hurrei zuzendutako Pedal Eguna antolatu zuten atzo; gaur, azken pitxerrak ▶ 4

**TOLOSALDEA** ▶

## Indiara bidaia egingo dute Amondarainek eta Esnaolak

Ibarrako Misio Taldearen eta Indiako Vedruna monjen proiektua da ▶ 6

**ZIZURKIL** ▶

## Ander Geresta presoa gose greban

Iragan astelehenean  
ekin zion ▶ 5

**LEON MARTIJA** ▶ EUZKO GUDAROSTEKO GUDARIA

## «Gerra Zibila galtzea hondamendia izan zen guretzat»

Euskalduna konpainian eta Loiola  
batailoian aritu zen EAJko kidea ▶ 7



## UZTURRETIK ▶ BITTOR MADINA

## Autostop-a



**O**rain berrogei bat urte «autostop» egitea modan jarri zitzaigun. Beso eta eskuineko behatz lodia luzatuta, bidetik zetorren kotxedun bat bertan gelditzeko eta gu hartzekoaren keinua zen. Minigona ere orduan hasi ziren neska erabiltzen eta horri esker gu mutilok baino aukera gehiago omen zuten: belaungainak agerian, errazago hartuko zituztela neska «stop»-ariak galtza luzeak generamatzanak baino. Beharbada «stop»-ik egiten ez zutenen zurrumurru eta txutxu-mutxuak omen ziren. Hasierako urte haietan, kotxe gabekoen (gutxiak zeukatzen) eta gehienbat

gazteen ohitura bihurtu zen «autostop»-a. «Dyane», «4 - 4», «Seiscientos», «Seat 750» edo gehienez «Dauphine» markako kotxeak ikusten genituen behatza luzatzen genuenean. Herri batetik bestera edo kilometro askoko ibilbidea egiteko asmorik izaten bagenuen, oporretan bereziki, bide ertzean jarri eta bihotz oneko gidaria noiz gelditzen zitzaigun zain egoten ginen. Sartu bezain laister hitzegiteari ekiten genion ezezagun izanda ere. Beldurra, mesfidantzak eta lotsa faltsuak kentzeko ohitura berri ona bihurtu zitzaigun. Are gehiago, esango nuke: Ikaslekua ere bai.

Denok ditugu oroitzapen on eta ez hain onak. Oroitzapenak opari magikoak direnez sarritan bihotzeko ordenagailutik sentipenen pantailara autostopean bizitako gertaera bat agertzen zait.

Kontatzerakoan, gustora sentitzen naiz.

Frantziako Nantes hiriko udaleku bateko gaztetxoaren monitore lanak bukatu ondoren, Parisera «stop»-ez joatea erabaki genuen nere lagun batek eta biok. Laurehun bat kilometro? Furgonetadun batek hartu gintuen. Ezezaguna izanda, bidean solasaldi ona egin ondoren eta Paris begibistan genuela lo egiteko tokirik ba ote genuen galdetu zigun. Gure ezetza jaso ondoren, bere etxera eramane eta bertako giltza eta gela bat eskaini zizkigun egun batzuetarako. Zur eta lur gelditu ginen. Hurrengo egunetik aurrera egunez Paris ezagutu eta gauez oparitutako kaiola goxora sartzen ginen. Horrela, aste bat igaro genuen bertan.

Esperientzia eder horrek izan du aurrerantzean bere eragina nigan: autos-

top egiten duen edonori kotzeko atea zabaltzea beti. Bidebatez, beharra daukadanean bidai laburrerako «stop»-a ere oraindik egitea. Badakit, kotxe barruan sartzen denak ahalegindu behar duela elkar komunikazioa sortzen eta mantentzen. Horrela ez bada, baita bidaiaren motzean ere nagusitzen den ixiltasunak kilometro bakarra ere luzeegi bihurtzen du. Egoera hau suertatu izan zait norbait hartu dudanean. Gehiengotan, alaiak eta kontalariak topatu izan ditut.

Gaur egun, «autostop» egitea «dedo egitea» bihurtu da. Horrela entzuten diet gaztetxoei. Ingelesetik gaztelaniara jo dute. Ibilbide motzetara mugatuta daukagu, autobiak, autopistak eta baita ere kotxeak ugaritu direlako. Ziztu biziko egoeran murgilduta gaude, baina asko maite dut oraindik Tolosa eta Ibarren mugan dagoen «Domineko» autostopeko kokagunea. Hortxe hartzen naute eta beste batzuetan neuk hartzen ditut Berrobira iristeko.

## LEHEN ETA ORAIN ▶



## Pablo Gorosabel kalearen ikuspegi orokorra, 1907. urtean

**Erredakzioa** ▶ Tolosa etengabe berritzen doan herria da; lanak, eraikuntza berriak, eraberritzeak... Horrela erakusten dute aspaldiko argazki zaharrek. Hala ere, kaleek euren sarma mantentzen dute sarritan. Duela mende bat (1907an hain zuzen ere), esaterako, Alde Zaharreko Pablo Gorosabel kalea —ezkerrean agertzen den argaz-

kian ikus daitekeenez— bazituen egun ere ikus ditzakegun eraikuntzak. Beste askok, ordea, aldatu egin dira, urteen poderioz. Orain (eskuinean dagoen argazkian ikus daitekeen bezala), geltokia alboan duela, denda, taberna eta bestelako komertzioz inguratuta ageri da. ARGAZKIAK TOLOSA (JOSE MARIA TUDURI ESNAL) / ESTI EZEIZA

GUTUN@K ▶

Gerontologikoaren aldeko plataformako kideek zentro berriaren egungo egoerari buruz

Maiatzaren 23an, Plataformako kideek antolatutako manifestazioa baino hiru egun lehenago, Tolosako udalategian dauden alderdi politiko guztietako ordezkariak, beraien esanetan «alderdikeri guztien gainetik», «hilabete askotako eta diskrezio osoz eginitako lan handiaren ondorioa», «Zentro gerontologiko integral eta berria» izango zen erakitze proiektuaren notizia, lau haizetara zabaldu zuten.

Ekainaren 30ean, Gizarte Politikarako diputatua den Esther Larrañagak, Tolosako Udalak publikatu zuen proiektuari buruz informazioz ba ote zuen galdetzean, gutun batean honelaxe erantzun zion juntetako Aralarko ordezkariari: «egun Diputazioak, Tolosako Udalak aurkeztu duen proiektuaren berri ez du», ondorioz, «etorkizuneko zentroaren gestioari buruz edota plazen kontzertazioari buruz hitz egiteko goizegi da».

Uztailaren 5ean, Gipuzkoako Diputazioaren web orrian (gizartekintza.net) Gipuzkoak 2008rako 65 zentro izango zituela baieztatzen zen. Hauek 4, berriak eta Lazkao, Zumarragan, Zumaian eta Aretxabaletan kokatuak. (Tolosan aipatu ere egiten ez zelarik).

Irailaren 21ean, aipatutako web orri berdinean, 2008rako plan foralaren barnean plaza kopuruen handitzea eta erreformak jasango zituzten erresidentzien zerrenda argitaratu zuten, bertan, Segura, Soraluze, Azpeitia, Legazpi, Hernani eta Oñati aipatzen zituztelarik. (Hemen ere Tolosako udale-

teak horren aurreratuta zuen erresidentziari buruzko aipamenik ere ez zen egin).

Bestalde, gurekin batera lan-taldea osatzen duten alderdi politikoetako ordezkariak, haiekin izan ditugun bilerak guztietan, behin eta berri, orain 4 hilabete emandako prentsaurrekoan jakinarazi zitzaizkien informazioak gain, beste berririk ez dutela azpimarratu digute. Lan-taldeen parte hartzen ez duen alderdi politiko bakarrak, EAJ-PNVk, informazio gehiago izango ote duen, eta inoiz argitzeko intentziorik izango ote duen galdetzen diogu gure buruari.

Hau jakinda, etorkizunean datorkigunaren aurrean lasai eta kontentua, edota gure moduan adi eta kezkatua egon zitezke.

MANU LEUNDA ▶ GERONTOLGIKO PUBLIKO BERRI BATEN ALDEKO PLATAFORMA OSATZEN DUGUN KIDEEN ZINEAN

Hitza hitz edo «Donde dije digo, digo Diego»

Alec Reid apaiz katoliko irlandarrak, Irlandako bake negoziatioetan bitartekari izandakoak, honelakoak adierazi zituen ETaren sueten iraunkorren berri izan bezain laster: «ETAko buruzagitzak oso lan zaila egin du. Argi dago ez zela meniarik izango Batasuna legezatzearren eta presoengun konpromisorik lortu gabe». Alec Reid apaizari sinistuz gero, eta sinesteko moduko pertsona denik ezin uka, hitz egiteak, negoziatzeak, akordioetara iristeak ETaren sueten iraunkorra ekarri zuen. ETAk hitza bete zuen, baina espainolek ez. «Hitza hitz» euskaldunen gauza da, espainolena «Donde dije digo, digo Diego» den bezalaxe, itxura guztien arabera. Presoen gaian hobekuntzak izan ordez, kalteak eta ondoezak

besterek ez zaizkigu iritsi. De Juana gose greban, duela bi urte kalean egon behar zue-nean; Jon Agirrerri, 25 urte kartzelan eman ondoren, zigorra luzatu... Hori bai, espainolek beren presoak ederki asko amnistiatu dituzte (Vera, Galindo, Elgorriaga, Amedo...); kondenaren laurdena ere bete gabe kalera. Legezatzearren inguruan ere ez dago nobedade handirik, ez Madrilen ezta hemen ere. Hemengoek ere, lasai asko eta lotsa izpirik gabe, jarraitzen baitute beste batzuen zinegotzi eta alkate postuak okupatzeko. Tolosan adibidez, aurreko alkateak ezin izan du zinegotzi izan, 2.495 boto lortuta el.

Carod Rovirak esana da: «Jendea mintzoaren bidez iristen da elkar ulertzera», eta, nahiz eta tranpa egin orain artekoan bezala, lan horretan segitu beharra dago. Batetik, ETAk eta Espainiako zein Frantziako estatuek presoek, okupazio indarrez ... hitz egin behar dute eta akordio zehatzagoetara iritsi; eta bestetik, Euskal Herriko alderdi politikoek ere hitz egin jarraitu behar dute mahaiaren inguruan, erabakitze eskubideaz eta lurraldetasunaz akordioetara iritsi arte. Gai horietan adostasunera iristeak ekarriko du bakea Euskal Herrira, justizian eta demokrazian oinarritutako bakea.

Horiexek ditugu askatu beharreko korapiloak: presoak etxeratzea, indar okupatzaileen etxeratzea —nor bere etxera, alegia, euskaldunak Euskal Herrira eta besteak beren herrira—, erabakitze eskubidea kanpoko eragirik gabe eta Euskal Herria bat egiteko modua, hori lortzeko bideak jartzeta, herri honek hala nahi izanez gero.

Aipatutako helburu horien azpitik, hortik behera, egon lasai, eskatuko dute-eta beste batzuek: UPNk, PSOEk bere barianten guztietan, UMDk eta abarrek hortik behera negoziatu nahiko dute,

ziur. Abertzaleok gara hortik behera negoziatzen utzi behar ez diegunak.

Zergatik? Justiziazkoa delako Europako herririk zaharrena berak bakar-bakarrik erabakitze eskubidea izatea; bidezkoa delako Euskal Herriak armen bidez edota ediktu anexionisten bidez (1200. urtean, 1512an, 1521ean, 1620an, 1789an, 1839an, 1876an, 1936an...) jasandako lurralde txikiak eta kultur zein hizkuntza asimilazioa berrosatzeko bideak lortzea; arrazoizkoa delako euskal presoak beren etxean izatea, baita hemen dauden indar okupatzaileak maite dituzten etxeetan izatea ere.

Tranpa egin al dezake abertzalaren batek? Bai, PNV saiatuko da. CIUK Katalunian egindakoa hemen errepikatze gogoia izango du alderdi-interesaren mesedetan. Hiru probintzietako estatutua paktatu PSOErekin; horrela, espainolak kontent eta baita PNV bera ere. Abertzaleen helburuak ez direla bete? Beraienak bai, ordea. Espainolak eta frantsesak gustura erabakitze eskubiderik ez onartuta eta PNV ere pozik, Euskal Herriaren zati baten zat espainolek kontzesioan utzitako autonomiaren poltsa beroa beren magalean dutela.

Nola ekidin Kataluniako tranpa? Apirilaren 1ean egindako manifestazio erraldoiak eman zigun pista. Herritarrok gotortu behar ditugu gure helburuak, PNVko erregionalistek tranpa egiteko aukerarik izan ez dezaten. Hortaz, ondorengo egunetan, eta baita aurrerantzean ere, antolatutako manifestazioetan parte hartzea oso da garrantzitsua, izan ere, gatazka kaleetatik ateratzeak ez baitu esan nahi etxean goxo geratu behar dugunik, ez horixe. Nire ustez, «kalean modu baketsuan irmo» esan nahi baitu, gaur eta hemen, gatazka kaleetatik ateratzeak.

IÑAKI AZALDEGI ▶ TOLOSA

ESANA ▶



GARI URANGA  
REALEKO JOKALARIA

«Realean egiten dudana lanarekin gustura nago baina agian zerbait hobetu beharko nuke»

«Taldeen oso giro ona dugu; aurrekoetan horrek lagundu digu maila mantentzen»

«Entrenatzaileekin ere oso ondo moldatzen gara, eta gazteak izan arren gauza asko dakite»

DATUA ▶

23

Garagardo mota. Ezberdin dasta daiteke, gaur 00:00ak arte irekita egongo den VIII. Garagardo Azokan. Zerkausi eraberrituan izango da horretarako aukera, bai eta Plaza Berrian jarri duten karpan ere. Honekin batera, saltxitak, solomoak eta ukondoak bezalako jaki gozoak izango da jangai Azokan.

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik.

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberria ▶

Josu Mirena Aizpurua Martinez

*Begiak malkoz busti zaizkigu bihotza berriz penetan zure seiluak falta dira gure bizitzan kartetan nahizta jendeak esaten duen joan zarela benetan Josu zu beti egongo zara gu guztion bihotzetan*



Zure senideak

ZARAUTZ, 2006ko urriaren 8a

Josu Aizpurua Martinez

Adiorik ez!

Arrano Kabia Elkarte



oharra ▶ Lagunen arteko azken agurra bihar, Parrokiaren atarian.

ZARAUTZ, 2006ko urriaren 8a

VILLABONA ▶ AZOKA

# Urteko azokarik bereziena Txerminen

Isats gisatzailerik onena Amasako Uxo-Toki izan da, eta posturik onenaren saria Zabalegi fruita eta barazkientzat



Isats gisatuan bederatzik elkartek hartu zuten parte. Irudian, parte-hartzaileetako batzuk. NEREA URBIZU

## NEREA URBIZU

Txerminen kolore biziak, usain gozoak eta hots isilgabeara ziren nagusi. Alde batetik, barazkiak, esnekiak, pastelak, ardoak, pateak, zainzuriak eta abar izan ziren. Villabonako Irrintzi elkarteak antolatuta atzo ospatu zen elikagaien XI. Azoka Berezia. Bertan Euskal Herriko eta Errioxako (Espainia) hainbat saltzailek hartu zuten parte beraien produktu bereziekin.

Isats gisatua prestatzen 9 lapiko izan ziren, 9 elkarte, hain zuzen, zein baino zein presentzia hobegoarekin. Dastatzen, ordea, hiru zoridun izan ziren: Tolosako Sausta jatetxeko Mikel Zuaznabar, Amasako Iturri-goxoko Jokin Zabala eta Tolosako Zuloaga Txikiko Iñaki

Etxeberrria epaileak, hain zuzen. Gero, hala ere, denek izan zuten probatzeko aukera, jarritako barra luzean.

Isats gisaturik onena, epaileen arabera, aurten Amasako Uxo-Toki elkarteak prestatutakoa izan da. Bigarren, aldiz, Zizurkilgo Ibaiertz izan zen, eta hirugarren, Urkamendi elkarte. Amasako elkarteak lortutako garaipenarekin, Irrintzi elkarteak emandako maskorra ere irabazi zuen, izan ere, azken hiru urte hauetan bera izan da txapelduna. Garaikur hau irabazi ahal izateko parte-hartzaileek hiru urte jarraietan irabazi beharra daukate, edo bestela urteetan zehar 5 aldiz. Hauek dira epaileek kontuan hartu dituzten irizpideak: zaporea, presentzia eta egitura.

Epaimahaia osatzen zuen hiru koteak «zaila» izan du isats gisaturik onena aukeratzeko orduan: «gero eta maila hobea erakusten dute parte-hartzaileek, eta zaila da bat aukeratzeko».

Bestalde, posturik ederrenari ere saria eman zioten ere, eta



Posturik ederrena Zabalegi baserriarentzat izan zen. NEREA URBIZU

aurten, Martuteneko Zabalegi baserriari egokitu zaio. Bertako barazkiak eta fruitu ederrak ikustekoak ziren, zalantzarik gabe.

Iparraldeko Jabier Egiak pateengatik bigarren saria eskuratu du. Azkenik, Lekunberriko Bikain gazteek lortu dute hirugarren postua. Honetan, produktua bera eta presentzia izaten zuten kontuan.

Hasiara batean azoka Errebote plazan egin behar bazen ere, euria eta eguraldi desatse-

gina zela ete, Txermingo ikas-tolako aterpeetan gauzatu zuten elikagaien feria. Ohi bezala, atzokoan ere ekitaldi arrakastatsua izan zen eta antolatzaileek adierazitakoaren arabera, «saltzaileak gustura etortzen dira asko saltzen baitute».

Elikagaien Azoka Berezia Villabonon urte guztian egiten den azoka berezi bakarra da. Denera 30 saltzaile inguru etorri ziren, ikusle, erosile eta bertaratu ziren guztien gozamenerako.

## TOLOSA ▶ AZOKA



## Probintziako aziendarik onena, ferialekuan

**Erredakzioa** ▶ Atzo Tolosako Ferialekuan Gipuzkoako XXXVII. Abelgorri Lehiaketa izan zen. Bertan probintziako 5 arraza ezberdinetako behiak lehiatu ziren. Sailen artean, suitzarrak, frisoiak,

pirenaikak, blondak eta limousinak izan ziren, eta hauen barne, hainbat azpi kategoria. Hala, ganaduzale ugari bildu zen atzo ferialekuan, azienda buru ederrak ikusteko asmoz. N. URBIZU



ZIZURKIL ▶

## Ander Geresta preso politikoa gose greban dago

Aurreko astelehenean hasi zuen Fresnesko espetxean, beste lau presorekin batera

ERREDAKZIOA

Joan den astelehenean, hilaren 2an hain zuzen, Ander Geresta preso zizurkildarrak gose greba hasi zuen, Iñaki de Juana presoarekin elkartasunez.

Geresta Zizurkildarrarekin batera, beste 4 presok hartu dute erabaki berdina, Fresnesko (Frantzia) espetxean. Horietako hiru preso prebentiboak dira, horietako bat andoaindarra. Beste biak, horietako bat, Ander Geresta, kunplimentuan daude. Berarekin Galdakaoko preso bat dago.

Preso zizurkildarra Frantziako poliziak atxilotu zuen 2000. urteko maiatzaren 26ean, Bordele ondoan (Frantzia), tiroketa tartean izan zelarik. Berarekin batera egun aske den Aritz Aranburu donostiarra ere atxilotu zuten.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

## «Irtenaraztea iritsi da, irtenbidea ez ordea»

Hilaren 15ean utzi beharko dute Urdanpilleta etxea Onddo Gazte Asanbladakoek, Udalarekin «akordiorik eduki gabe»



Onddo Gazte Asanbladako kideak, atzoko prentsurrekoan. N. URBIZU

ESTI EZEIZA

Onddo Gazte Asanbladak irtenarazteari buruzko balorazioa egin zuen atzo, prentsurrekoan. Hala, etorkizunera begira hartu dituzten erabakiak eta hainbat puntu garbi utzi nahi izan zituzten. Hasteko, Udalak urte honetan zehar izan duen jarrera salatu nahi dute, «lotsagarritzat» joaz. Onddokoek

esanetan, «Udaletxekoekin hainbat aukera eztabaidatu eta gero, irtenaraztea gainean dute, eta oraindik ez dute ordezko azpiegiturarik lortu». Udalak denera, Gaztetxe berri bat ipintzeko bost proposamen egin dizkiete, baina arrazoi ezberdinengatik, hauei ezezkoa eman diete Onddo Gazte Asanbladakoek.

Bestalde, maiatzean, Udale-

txearekin Katea etxea, hau da, egungo haurtzaindegia eskuartzeko adostasunera iritsi ziren Onddokoak, eta gestioaz Udalak berak arduratu behar zuten. Baina Asanbladakoek adierazi dutenez, bi hilabete-tan, ez dute berri gehiagorik jaso, eta egun, oraindik ere zintzilik dago.

Hala ere, eta hau guztia ikusita, adierazi dute, ez dutela haurtzaindegiaren proiektua oztapatu nahi. Baina garbi utzi dute ere, ez diotela udaletxeari berriro «adarra jotzen utziko». Beraz, hemendik aurrera, bere martxan jarraituko dutela jakinarazi dute, eta ez diotela datorren astean beteko den kanporatze epeari jaramonik egingo, «oraindik eraberritze lanak ez baitira hasiko». Bestalde, beraien esanetan, «Urdanpilleta etxea, edo egungo Gaztetxea uztean duten egunean, gure herriko etorkizuna diren haurrei pasako diegu erreleboa festa giroan eta herri osoaren presentziarekin».

AZOKA ▶

## Euria nagusi hil honetako lehenengo azokan

Bertako perretxiko eta onddoen eskaintza gori gorian da dagoneko

PABLO ALBERDI

Euria eta lasaitasuna izan zen nagusi atzo erosileen artean Tolosako azokan. Saltailean aldetik ordea, izan ziren berrikuntza garrantzitsuak, eta egundoko eskaintza. Perretxiko eta onddoen postuetan adibidez, bertako perretxikoaren eskaintza izugarria ikusi genuen, kuletroa ere barne zela.

Barazkien artean gardua berrikuntza bezala. Aurtan ohiko garaia baino askozaz lehenago atera da produktu hau, eta itxura ere oso ona zuen. Berdura plazan dagoneko apaingarriko landareen zerrenda, osotu egin zen, eta dagoneko aukeran dauzka-gu neguko landare guztiak. Ziklamena, pentsamendua eta azalea izan ziren nagusi, eta hauekin, barruko landareak, koniferak eta artezak.

ATZOKO AZOKA ▶

Gaia	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Gerbera	12,00	-
Klabeledina	3,20	-
Xarbot	4,00	-
Salbia	1,00	1,20

Bertako produktuak		
Onddoak	14,00	18,00
Sagar gorria	1,00	-
Hurra	2,00	3,00
Kalabaza	1,50	3,00
Intxaurra	3,00	4,00

Produktu ekologikoak		
Txixirioak	2,40	-
Aza	2,50	3,00
Tipula	2,75	3,00
Mermelada	3,00	3,60

TOLOSA ▶ GIZARTEA

## Txirrindulari gazte ugari bildu ziren atzo pedalaren festan

8. Garagardo Azokaren baitan, hainbat ekitaldi antolatatu dituzte; gaur da azken eguna

E. EZEIZA

Orain arte gerturatu ez denak, gaur izango du VIII. Garagardo Festara joateko azken aukera. Atzo arratsaldean gaztetxoek izan ziren protagonista. 17:00etatik aurrera, Tolosako kale nagusiak beraientzat izan baitziren. Hala, Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuta, 5 eta 12 urte bitarteko gaztetxoak ibili ziren San Frantziskoko kaletik abiatuta, hirian barna. Bestalde, garai berean, Leidor antzokian Txiri, Mirri eta Txiribiton Juniorrek, beste behin, farre eginarazi ziren eskualdeko haurrei.

Gaur, azokari amaiera emateko, 17:00etatik aurrera, Zirko Tailerra izango da Triangulonan. Eta ordu bete beranduago, xake erraldoi batean jolastu ahal izango dute Plaza Zaharrera hurbiltzen direnek.

Honez gain, gainontzeko hiru egunetan bezala, nahikoa jan eta edateko aukera izango da Zerkausian. Azken egun honetan, 18:00etan irekiko dira Garagardo Azokako ateak, eta 00:00ak arte egongo dira zabalik. 23 garagardo ezberdin dastatzeko aukera izango du bertaraten denak, eta honekin batera, aurtengo berrikuntza den xajoniar solomoa.



Atzoko Pedalaren Festako irudietako bat. E. EZEIZA

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Elkarrizketa.** Jose Leon Martija, Eusko Gudarosteko gudariarekin hitz egin du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK. Sartu gure webgunean eta Loiolako batailoian aritutako gudari ohia ezagutzeko aukera izango duzu.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

**Autoa.** BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 km, liburuarekin. 18 ko gurpiletako hargunak eta tebxu. Egoera oso onean. 14.000 euro.  
Deitu 943 65 41 43ra  
**Garajea.** Tolosan garaje itxia salgai.  
Interesatuak deitu 943 65 25 91 telefono zenbakira.

LANA

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da Tolosaldean 4 ordu lan egiteko. Eskarmentuduna.  
Deitu 635 74 52 91ra.  
**Ile-apaintzailea.** Tolosan ile-apaintzailea behar da. Esperientziarekin. Kontratu finkoa eta gizarte-segurantzarekin.  
Deitu 625 70 50 59 zenbakira.

IBARRA ▶ GIZARTEA

# Indian elkartasuna zabaltzen

Hiru hilabeterako egitasmoa jarri dute abian Ibarako Misio Taldearen eta Indiako Vedruna monjen elkarlanaren bidez Eider Amondarain tolosarrak eta Nagore Esnaola txaramarrak

JULEN GOIKOETXEA

**P**roiektuaren sorreran nolabaiteko halabeharra dagoela esan daiteke. Izan ere, Eider Amondarain tolosarra eta Nagore Esnaola txaramarra Indiara bidean jarri ahal izateko lehen kontaktuak bi nesken lagun batzuen lagunen bidez egin zituzten. 23 urteko bi neskek dagoeneko euren ikasketak amaituta dituzte eta ikasitakoaren inguruan lanean hasi ordez, beraien ezagutzak Indian barrena laguntzeko erabiltzea erabaki dute.

Gauzak horrela, Ibarako Misio Taldearen bidez Indiako Vedruna mojekin jarri ziren harremanetan. Indian Vedrunarren sortzaile izan zen Zoila Ama, ibartarra zen sortzez eta beraiek esan zuten Espainiara etortzen diren bakoitzean eta ahal badute behintzat, Euskal Herrira etorri eta Ibarra bisitatzeko aprobetxatzen dute. Bisita horietako batean sortu omen zen bi neskek Indiara joateko aukera eta bi aldiz pentsatu gabe baiezkoa eman zuten. Beraiek ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izateaz gain, pertsona bezala gauza asko eta anitzak ikasteko aukera paregabea zutela ikusi zuten eta horrek bultzatuta aurrera egitea erabaki zuten Eider Amondarainek eta Nagore Esnaolak.

Indian gaur egun bizi duten egoerari buruz, vedrunatar monjek adierazi zuten emakumeak lan mundura sartu ahal izateko prestakuntza bultzatu behar dela. Indiako gizarteak garapen bidean sartzeko burutu beharreko ezinbesteko urratsa dela gaineratu zuten. Izan ere, gizonezkoek lanean irabazten duten diru guztia alkoholetan xahutzen dute eta hori dela-eta emakumeak lan munduan sartzeko ezinbestekoa da.

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Gidariak.** Libre dauden lanpostuak betetzeko behar dira: Eusko Jaurraldiz, udalak, erakunde publikoak.  
943 31 37 82.  
**Harreragileak-administratzaileak** laguntzaileak. Erakunde publikoetarako behar dira.  
943 31 37 82.

Bestalde, haurren hezkuntzari buruz, internatuen sorrera bultzatu behar dela esan zuten. Izan ere, Indian herriak oso sakabanaturik daude eta bertako umeentzat oso zaila da eguneroko eskolara heltzea. Horregatik, internatuen beharra ezinbestekoa da etorkizunari begira Indiako gazteek heziketa egoki bat jaso ahal izateko.

### Ibaratik laguntza ematen

Amondarainek eta Esnaolak indiarrek izan dituzten harremanetan, izan da nolabait esatearren bitartekaritza lanak egin dituen elkarte bat. Ibarako Misio Taldea da erakunde hori eta beharra dagoen toki orotara ahal den neurrian laguntzak bidaltzen saiatzen dira. Argi dago beraz, elkartasuna abiapuntutat duen elkarte dela eta hori horrela dela adierazten duten ekintzak burutzen ari da jada elkarte ibartarra. Izan ere, badira jada bi urte Bombayko kaleetan bizi den jendearentzat etxeak egiten ari direla. Proiektu hori ordea, oso garestia da eta horregatik fase ezberdinetan ari dira egiten. Baina ez da martxan daukaten egitasmo bakarra. Aurrera begira jarriak daude jada eta ikasleentzat internatuak egiteko asmoa ere badute. Baina ez dira jendearentzat babeslekuak egitera soilik mugatzen. Ibarako Misio Taldeak, Indiako haur bat babesteko aukera ematen dio nahi duen edonori. Urtero diru kopuru bat ordainduta, haur indiar baten bizi kalitatea eta hezkuntza hobea izaten lagun dezakegu.

Gauzak horrela, proiektua abian da jada eta Amondarain eta Esnaola abenduaren 30era bitarte behintzat Indian izango dira euren ezagutzak bertako en egoera hobetzeko balio dezan eta bide batez, ahal duten guztian laguntzeko. Agian historia hau ezagutu ostean egongo da norbait barruan zerbait sentitu duena eta gisa horretako proiekturen baten bidez bere elkartasuna beharrean diren tokiren bateko jendearekin banatu nahi duena. Horrelako kasuren bat balitz, interesatua Ibarako Misio Taldearekin jarri daiteke harremanetan eta beraiek euren esku dagoen guztia egiteko prest daudela adierazi zuten jendearen ametsak egi bihurtu ahal izateko.



Proiektuan parte hartu duten bi gazteak, monja indiarrek eta Ibarako Misio Taldeko kideak. J. GOIKOETXEA

## NAGORE ESNAOLA ETA EIDER AMONDARAIN ▶ LANKIDE BOLUNTARIOAK

# «Horrelako proiektu batean sartzeko, norberaren gogoia ezinbestekoa da»

Nagore Esnaola eta Eider Amondarain dira Indiara elkartasun proiektu batean doazen bi gazteak. Biek ikasketak amaitu dituzte eta elkarriketa egindako unean nabari zitzaizaien horrelakoetan jendea nabaritzen zaien urduritasun eta ilusioaren nahasketak sortarazten duen nolabaiteko urduritasun puntua.

**Indiara hiru hilabeterako eta bertakoei laguntzera. Norberak oso konbentzita egon behar al du?**

Gure ustez bai. Azken batean ez goaz lanera soilik; han ez dugu nikola errealitatearekin topatuko garen eta edozein gauzatarako prest egon behar dugu. Badakigu egoera zail batekin aurkitzea ez dela harrizkoa izango eta beraz, norberak hartu beharreko erabakia da.

**Indiara joateko aukera agertu zenean zer pasatu zitzaizuen burutik eta asko pentsatu behar izan al zenuten?**



J.G.

Ez askorik. Ikasketak jada amaituta genituen eta ikasitakoa praktikan jartzeaz gain, beste jardura askotan aritu beharko genuela ohartu ginen eta gainera pertsona bezala esperientzia oso aberasgarria izan ziekeela konturatu ginen. Guri berdin zitzaizun nora joan eta Indiako aukera atera zenera berehala onartu genuen. **Beraz ez dakizue ziur zertan jardun beharko duzue?** Printzipioz guk ikasitakoan jardungo dugu. Baina beti ere, irekita gaude etortzen denerako.

Badakigu horrelako tokietan edozein beharra izaten dutela eta beraz esaten digutena egin beharko dugu.

**Abenduaren 30ean itzuliko zarete. Eta handik itzultzeko gogorik ez bazenute?**

Guk han 3 hilabete eta erdirako egonaldi dugu hitzartuta. Abenduan derrigorrez etorri beharko genuke. Baina hori bai, itzultzeko gogoia bagenu edota beste norabait joateko gogoia sortzen bazaigu, berriz mailetak egiteko prest egongo gara. ◀

JOSE LEON MARTIJA ▶ EUZKO GUDAROSTEKO GUDARIA

# «Gerra galtzea hondamendia izan zen»

Euskalduna konpainian eta Loiola batailoian aritu zen EAJko kidea Gerra Zibilean, osasun lanetan; ondoren langileen batailoietan aritu zen Burgos, Leon, Teruel, Katalunian eta Madrilen

JOXEMI SAIZAR

Jose Leon Martija Karasatorrek (Tolosa, 1917) Euzko Gudaroan borrokatu zuen Gerra Zibilean. Urteko mendatean, Elgetan eta Bizkaiko hainbat tokitan aritu zen. Santoñako ospitalean zegoela, preso erori arte. Langileen batailoian aritu zen Espainiako hainbat tokitan. Gerraren bukaerak Toledoko herri batean harrapatu zuen. EAJko kidea da 1932tik.

## Non eta nola harrapatu zintuen Gerra Zibilak?

Familiaren hotelean, Gorriti plazan. Nire aita 1933an hil zen eta ordurako alokatuta zeukan. Hala ere bertan bizi ginen eta gasolindegia eta garajea mantentzen genituen bertan. Hotelean erreforma egiteko dirua eskatu zuen. Aita hil zen, gerra iritsi zen eta hotela galdu genuen, hipoteka ezin ordainduz.

## EAJko kide zinen jada?


19 urte bete berriekin harrapatu ninduen gerrak. Ordurako EAJn nengoen. 1932-33 hasieran sartu nintzen. Aita EAJkoa zen, baina ez nekien. Batzokian sekulako giroa zegoen orduan.

## Nola bizitu zenuen 1936ko uztailean 18a?

Bezperan gauerdian Beotibar frontoitik atera ginenean —osaba zen gerentea eta laguntzera joaten nintzen— Erbiya kafetegiaraino parean auto bat iritsi zen bi militarrekin. Bete-luko errepidetik karlistak zetozela esan zuten. Espiak zirela jakin genuen gero. EAJk, zalan-tza egun batzuen ondoren, mugimenduaren aurka jartzea erabaki zuen eta 21ean edo 22an Urtora joateko talde bat eskatu zuen. Leitzatik zetozten erreketei aurre egiteko, eta hara joan nintzen. Aitarien ehi-za eskopetarekin eta eman zidaten 22 kalibreko errebolber batekin. Besterik ez genuen. Denak ez ginen EAJkoak. Bi preso hartu genituen, aita-semeak, karlistak ziren. Donostiara eramane eta fusilatutako gingo zituzten. Urton tiroketa bat izan zen eta lehen hilakodo edo zaurituetako bat han izan zen. Enrique Guimon abertzale tolosarrak tiro egin zion. Ez dakigu hil zen ala ez.

## Denbora asko egin al zenuen han?

Tolosara jaitsi behar izan nuen, etxeko gasolindegian behar nindutela abisatu zidaten. Ofiziala zen eta gaueko txanda



JOXEMI SAIZAR

## FUSILAMENDUA

«Tolosako kartzelan guardian nengoen, hamaika preso karlista eraman zituzten eta fusilatu egin zituzten»

norbaitek egin behar zuen. Lau gasolindegia ginen txandaka. **Fusilamendu batzuk izan ziren Tolosan.**

Bai. Kartzela Euskal Herria plazan zegoen eta guardian nengoen ELA-STVkoekin. Donostiatik kamioneta bat etorri zen hamaika presoko zerrendarekin eta eraman egin zituzten: Caballerotarrak, Ragan... herriko karlistak ziren. Zuzendaria udaletxera deitu zuen eraman zituztela esateko eta batzuk —Labaien alkatea, EAJkoak, sozialistak...— berehala atzetik atera ziren autoz. Donostiara, fusilamendua ebaitatu nahian, baina besteak Hernanitik joan ziren eta ez zituzten aurkitu. Paseo Berriak fusilatu zituzten. Nazionalak sartu ondoren, mendeku bezala, hoge eta piko lagun harrapatu, herriari zehar paseatu eta kanposantuan fusilatu zituzten: sozialistak eta CNTkoak, EAJko bakarra Rogelio Karre-  
ra.

## EUSKALDUNA

«Euskalduna konpainia osatu genuen tolosar batzuk, gehienak futbol talde eta taberna horretan biltzen zirenak»

## Abuztuaren 11n Tolosa hartu zutenean, non zinen?

Etxean miliziar talde bat zegoen. Izaskundik erasotzen zuten erreketee, Arrillaga baserri-  
tik, orain klinika dagoen horretan, eta tiroka erantzuten genien. Leaburuko kanpandorrean ametrailadora jarri zuten. Abuztuaren 10ean atera ginen, Jesus Arregi lehengusua, beste lagun bat eta ni Zizurkila joan ginen, ama eta familia han zeudelako. Handik Zarautza jaitsi eta handik Eibararrera eta gero Gernikara. Han sartu nintzen Euzko Gudaroan.

## Zein izan zen lehen zeregina?

Lehen irteera Elgetara izan zen. Euskalduna konpainia osatu genuen tolosar batzuk, gehienak Euskalduna futbol taldekoak, izen bereko tabernan biltzen zirenak. Ehun eta piko ginen konpainian. Dena abertzaleak edo afiliatu gabeko lagunak. Gehienak hilak daude: Juanito Recio, Imanol Brau, Juanito Zabala ibartarra,

## GERRAOSTEA

«Bizitza nahiko normala zen, baina kontuz ibili behar zen esandakoarekin jende gaiztoa zegoelako»

beste ibartar bat Modesto zenezkoa, Guimon, Jose Mari Loizak sargentoa...

## Gero batailoia osatu ziren.

Itxarkundian sartu zen Euskalduna konpainia. Baina Bibiano Larramendi mediku tolosarra etorri zen osasungintzarako jendea behar zuela esanez eta hara joan nintzen. Loiola batailoian tokatu zitzaigun eta konpainia bateko teniente bezala Fermin Izagirre tolosarra zegoen. Frontean geunden, Bizkaia aldean. Txandakatu egiten ginen Itxarkundia batailoiarekin, hilabetea frontean, bestean atsedena Gernikan.

## Gernikako bonbardaketa tokatu al zitzaizun?

Menditik ikusi genuen hegazkinak Gasteiz eta Burgoetik etortzen. Ehun arte kontatu genituen, asko errepikatuta. Tolosar batzuk baziren: Jaxinto osaba, Fuentes... baina mendira joan eta zortea izan zuten.

## Noiz arte horrela?

Erasoaldia hasi zen arte,

1937ko martxoaren 30ean edo Zortea izan genuen. Bonbardaketa bakarra tokatu zitzaigun. Ia Bilbora iritsi arte erasoak izan genituen. Gure brigadan lau batailoia zeuden: bi EAJkoak, bat CNTkoa eta bestea sozialista. Zozketa egin Artxandako mendira joateko eta Itxarkundiari eta sozialistari tokatu zitzaizen. Orduan galdu zen Bilbo. Santoñako ospitalean Tolosako lau ginen. Metraila nuen izterrean, kainoi txiki batena. Turtziozen jaso. Larramendi zegoen Santoñako ospitalean mediku. Han harrapatu gintuzten, 1937ko abuztuaren.

## Nora bidali zintuztetzen?

Atxilotu eta handik 40-50 egunetara —jan gabe nola bizi ikasten aritu nintzen han— denak epaitu eta destino desberdinetara bidali gintuzten Armadara, kontzentrazio esparruetara, langile batailoietara edo libre. 150-200 lagun han gelditu ginen. Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrura bidali ninduten. Gero Leonera eta Teruelera langileen batailoian. Ahal zen gutxiena egiten saiatzen ginen.

## Non iritsi zitzaizun bukaera?

Ondoren Kataluniarra joan ginen. Aurreratzen zihoazen eta gu haiekin batera lekuz aldatzen.artzelonatik Leonera, Extremadurara eta Madrilerara joan ginen trenez. Ezin zen zuzenean pasa. Handik gutxira, 1939ko apirilean, amaitu zen gerra. Toledoko Mascaraque herriari geunden. Hondamendia izan zen guretzat. Zer egin-go ziguten ez genekien.

## Eta zer egin zizueten?

Soldaduskara joan behar izan nuen. Urtebete egin nuen Iruñean eta Burgoen.

## Beraz, 1940ean itzuli ziren herriera. Nola aurkitu zenuen?

Oso aldatuta zegoen. Jende askok atera behar izan zuen herri-  
ritik kanpora. Eta jabetza asko kendu zizkieten. Gosea pasa genuen, baina bizitza nahiko normala zen. Hala ere ahoa itxita, badaezpada, jende gaiztoa bazegoelako eta kontuz ibili behar zelako esandakoarekin. Beldur handia zegoen.

## OHARRA ▶

Gaur HITZAK argitaratutakoa elkarrizketa osoaren zati bat baino ez da. Elkarrizketa osoa irakurtzeko aukera duzue gure webgunean.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

**Tolosa.** Garagardo Azokaren baitan, egitaraua: 17:00etan, Zirko Tailerra izango da Trianguloan. Ordu bat beranduago berriz, Ajedrez erraldoia egingo da Plaza Zaharrean.

**Ugarte.** Amezketako Ugarte auzoko jaien baitan, hau da egitaraua: 11:30ean, meza nagusia; jarraian, hamaiketako; ondoren, ingurutxo; bazkaldu aurretik, Laja eta Landakandaren trikitixa saioa. 18:00etan, herri kirolak: Haimar Irigoien, Joseba Ostolaza eta Goenatxo II.a harri-jasotzaileak; ondoren, ingurutxo; 20:30ean, sagardo dastaketa; bukatzeko, Laja eta Landakanda trikitixarekin.

ZINEMA

**Tolosa.** Leidor aretoan, *Cars* filma ikusgai, 17:00etan haurretan, 3 euroren truke; eta 19:30ean *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filma, 4,5 euroren truke. Bihar, ikuslearen eguna, 3 euroren truke, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filma

**Tolosa.** Bonbereneako zine-klub saioan, *Poseidon* filma izango da ikusgai.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leizta. Gimeno, A. Elbarren, 51. 112.  
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

Bihar

Leizta. Larraia, M.I Elbarren, 95. 112.  
Tolosa. Etxebeite, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)

Gaur 10:30-13:00. *Hitza* hegan magazina (errepikapena).

Bihar 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, *Hitza*ren erreposao, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...

19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
21:00-22:00. *Argizirin aitaldia*, Xorroxin irratiaren saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.


▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Zaldirik gabe ere, saltoka

**UGARTE** ▶ Zaldi lasterketa egin ez bazuten ere, haurrek kalean jarritako eskaintza guztiez gozatu zuten: kart-ez, puzgarriez eta zaldiez



Kart-etan ibili ziren gazteboak. Denek birak eman ahal izateko lerroan ibareron zuten. N. URBIZU



Ugartetarrak eta amezketarrak ibili ziren puzgarrietan. Zaila zitzairen salto eta barre aldi berean egitea. N. U.

NEREA URBIZU

**E**zin izan zion zeruak hostarteari eutsi: euriak goiz osoan zehar lurra busti zuelako. Ugarte auzoko festetan antolatu zuten zaldi lasterketa bertan behera geratu zen.

Hala ere, haurren jokoak egiteko ez zen arazorik izan. Puzgarrietan eta kart-etan gustura ibili ziren: puzgarrietan saltoka, pilotalekuaren babesean, eta kart-ak, aldiz, elkartearen aurreko parketxoan. Kupela taldearen musika alai entzun bitartean. 17:30ak aldera gurdian sartuta haurrek Ugarten zehar egindako paseotxoak ere egin ahal izan zituzten. Ondoren, ondo-ondo sartuko zen txokolate beroa denentzat.

Kalean zehar gazte, edo haur jendea zen ikusi zitekeena, beste askok VII. Mus Txapelketan aritzea erabaki baitzuten.

Gaur ere izango dute zertan igaro denbora: azkeneko festa eguna dute, baina ez txarragoa: harri-jasotzaileak izango dira eta jarraian, auzokoez dantzatuko duten Ingurutxo ikusi ahal izango da. Sagardo dastaketarekin eta Laja eta Landakanda trikitilariarekin bukatuko dituzte jaia.

AGURRAK ▶



ZORIONAK POTRO!

Bihar 27! je, je! Eutsi goiari ta aurrera bolie. Opariak laister helduko dituk. JTK. (Ibarrara herri ekimena)



**URTE ASKOAN**  
Mireia Arsope Goikoetxea (Lizartza). Gaur gure mabaradak 8 urte. Ai zein ondo ostauko dugun ebeko guztiok zorianak kanlatuz!

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza**  
agurren tartea



**URTE ASKOAN**  
Manex Esnaola Muñagorri (Tolosa). Zorionak pottolo! Bihar zure lehen urtebetetzea.



**URTE ASKOAN**  
Libe Barriola Goikoetxea. Gaur 8 urte. Zorionak eta muxu bat ebeko erreginari familiaren partetik.